



- Info
- opinion
- Naiz+
- Agenda

GARA > Idatzia > Euskal Herria

KRONIKA | TXOTX IREKIERA HERNANIN

## Prest da sagardo berria, alkoholez ez, baizik eta poz eta ilusioz mozkortzeko

Sagardogileek diote aurtengo edaria suabea eta edateko erraza dela. «Aurten eta beti; edan erraza dela badakigu!» bota zuen Hernaniko alkateak txotxa ez ezik herriko antolaketa eta azpiegitura guztiak prest daudela jakinaraztearekin batera. Hurrengo hiru hilabete luzeetan zabal-zabalik dituzte zaleek atak.

Maider IANTZI

Gaztea irratiko «Dida» saioko esatari saltseroek izan zuten Hernaniko txotx denboraldi berriari hasiera emateko ohorea, eta, ohi duten gisan, energiaz eta umorez egin zuten, euskal kantu ezagunen doinuekin mix bat abestuz, eurek asmatutako letrarekin. «Zuentzat eskainia gorputza jartzeko bero/ hau da Hernaniko sagardo berria, txotxero!» bukatu zuten kanta.

Aterki eta txamarrak hartu eta leporaino bete zuen jendeak Gudarien Enparantza. Kamera eta begi anitzek begiratzen zion, ikusmin handiz, Gazteako laukoteari. Ahots bereziko ataundarra, musika etengabe aditzen duena; aktore baten alaba, berezko grazia duen saltsazalea; gazteena eta isilena, lagunak gobernatzen meritua duen arrasatearra; eta euskañol akademiaren ideologoa, handikia, bere buruaren ispilua: Joseina Etxeberria, Edurne Garmendia, Ainhoa Vitoria eta Jon Gotzon.

«Ongi etorri» hasi zen Joseina, eta «welcome ladies and gentlemen» jarraitu zion kide fashion-ak. Ataungoak kontatu zuen hernaniarrek etortzera gonbidatu zituztenetik ez dela pozik falta izan euren aurpegietan, ezta urduritasunik ere. «Pentsatuko duzue ohituta gaudela goizero tontakeriak esanda. Hemen, ordea, bihotzetik hitz egin behar dugu eta bihotzari hitz eginaraztea kosta egiten da batzuetan». Gehituk eskatuta Donostiako kaldereroetan erregina lanak egin zituztenean, atzokoaren antzeko eguraldi petrala egin zuen, «fenomeno» pasatu zuten baina, eta, hala, Hernanira asmo berarekin etorri ziren. «Inork ez dezala gaizki hitz egin hernaniarrez gure aurrean!» abisatu zuten, hagitx eskertuta.

### Lehenengo txinparta

Txalapartarien eta dantzarien agurraren ondotik, Aitor Ruiz de Eginio herriko eskultoreak egindako oroigarria eman zieten omenduei. Eta orduan bai, edalontzia bete eta zintzurra bustitzeko ordua ailegatu zen. Jon Gotzon izan zen lehena, sagar bat diadema moduan buruan jarrita eta betaurreko berdeekin, okasiorako prestatuta. Kupelaren ahotik lehenengo txinpartak ateratzean, «hau da Hernaniko sagardo berria! Onak egin diezazuela!» oihukatu zuen. Irria marraztu zen jendearen aurpegietan eta «Dida» saioko laurak egin zuten tragoa.

Ezustean, gure «atsuak» agertu ziren beti bezala bazterrak aztoratzera. Harridura aurpegiz azaldu ziren, berandu. «Makillatzen ariko ziren» aipatzen zuen jendeak. «Hernanin puskatuko den aurreneko basoa!» egin zuen garrasi bikote xelebreak, edalontzia erortzearekin batera. Gero herritarrak sagardoa probatzeko prestatu ziren. Ilara luzea sortu zen musikak alaitutako plazan. Kupeletik hurbil herri kirol erakustaldia hasi zen, garai batean sagardoa edan eta sendo lan egiten zelako eta lotuta egon direlako aspalditik bi gauzak.

Alde batetik Fausto Mugerza aizkolaria zegoen; bertzetik, Idoia Etxeberria harri-jasotzailea. Lehenak egur handi bat nola hartu behar den erakutsi behar zuen, poliki-poliki menderatzeko, eta jendeari kinielak egiteko aukera eman zioten. Aizkolariak egiten zuen denboraren azpitik gehien hurbiltzen ziren aurreneko laurak sagardo kaxak irabazi zituzten. Bigarrena, Orioko 20 urteko neska gaztea, txapeldun handia da dagoeneko, marka guztiak hautsi ditu-eta. Berriki, Victoria Eugenia harriari egindako omenaldian, 140 kiloko harria lau aldiz jaso zuen bost minututan. Hernanira 100 kiloko errektangularra eta 88 kiloko kopa ekarri zituen, eta bakoitzarekin ahalik eta jasoaldi gehien egiten saiatu zen bi minututan.